

DBH_2 Fisika eta Kimika Programazio Laburpena					
Irakaslea	Izaskun Jorajuria /Yolanda Reca/ Izaskun Arraiza	Maila	DBH 2	Ikasturtea	2020-21
IKASGAIAREN EZAUGARRIAK MAILA HONETAN					
<p>Derrigorrezko ikasgaia, 3 ordu astean.</p> <p>Covid19 dela eta bizi dugun egoera aldakor honetan, Hezkuntza Departamentuak lan egiteko lau egoera ezberdin antzeman ditu. Lauak <a href="#">Kontingentzia Plana</a> izena daraman dokumentuan azaltzen dira.</p> <p>Lehenengo bi egoeretan, aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.</p> <p>Hirugarren egoeran, erdiz aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.</p> <p>Laugarren egoera, aurrez aurreko irakaskuntza ez da egongo, eta etxetik lan egin beharko da.</p> <p>Lehenengo bi egoerak gure ikasgaiari dagokionez, ez du desberdintasunik eta eskutan duzun testu honen arabera lan egingo dugu.</p> <p>Hirugarren zein laugarren egoeretan sartzan bagara, abian jarriko da ikastetxeko <a href="#">Arreta ez-Presentzialaren Plana</a>.</p>					
HELBURU OROKORRAK					
<p><a href="https://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2015/127/Anuncio-0/">https://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2015/127/Anuncio-0/</a></p>					
EDUKIAK					
<p>1. MULTZOA.– Jarduera zientifikoa (<i>unitateak: 1</i>)</p> <p>2. MULTZOA.– Materia (<i>unitateak: 2,3,4</i>)</p> <p>3. MULTZOA.– Higidura eta indarrak (<i>unitateak: 5</i>)</p> <p>4. MULTZOA.– Energia (<i>unitateak: 6</i>)</p> <p><b>Skolae:</b> Nafarroako Hezkuntza Departamentuko Skolae Berdin Bidean programan integratutako ikastetxea izanik, programa honen jarduerak eskola programazioan eta edukietan txertatuta daude.</p> <p><b>eTwining:</b> talde batzuetan programa honetan sartzerik izango da.</p>					
UNITATETAK ETA DENBORALIZAZIOA					
1. Ebaluazioa	2. Ebaluazioa	3. Ebaluazioa			
1. Jarduera zientifikoa	3. Materia eta haren egitura	5. Indarrak eta haien ondorioak			
2. Materia eta haren egoerak	4. Aldaketa fisikoak eta kimikoak	6. Energia			
OINARRIZKO GAITASUNAK					
<p>Ondoko gaitasunak landuko dira: Hizkuntza gaitasuna, gaitasun matematikoa eta zientzia eta teknologietako oinarrizko gaitasunak, gaitasun digitala, ikasten ikastea, herritaratzeko eta gizartearatzeko gaitasunak, ekimenerako eta ekintzaile izateko gaitasuna, kontzientzia eta kultura adierazpenak.</p>					
METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK					

Irakaslearen eragina hurrengo gaitasunak bultzatzea izango da: behaketa, analisisa, marrazki eta eskemak egitea.

Gelako lana bakarka egingo da eta zuzenketa komunean, irakasleak zuzendurik.

Batzuetan IK/KI arabera taldekatzean (4naka) lana egingo da. Gero ondorioak denek komunean jarri. Ikasle bakoitzak koaderno bat egingo du, zeinetan jarduera guztiak azalduko baitira.

Laborategiko lana taldeka egingo da. Saiakuntza bakoitza bukatutakoan irakasleak taldeko lana jaso eta zuzendu egingo du. Laborategiko saiakuntzen txostenak fitxetan azalduko dira.

Klasean baliabide ezberdinak erabiliko dira: testu liburua, diapositibak, bideoak, eskemak...

Laborategiko behaketak eta saiakuntzak paperez eta ordenagailuz egingo dira.

## EBALUAZIOA ETA ERREKUPERAZIOA

### EBALUAZIO IRIZPIDEAK ETA IKASKUNTZAKO ESTANDAR EBALUAGARRIAK

[https://www.navarra.es/home\\_eu/Actualidad/BON/Boletines/2015/127/Anuncio-0/](https://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2015/127/Anuncio-0/)

#### KALIFIKAZIO SISTEMA eta TRESNAK edo BALIABIDEAK

➤ Ikasleen notak lortzeko egindako azterketak (praktikoak, teorikoak, laborategiko praktikei buruzkoak...) praktiken txostenak, gelako koadernoak, klasean nahiz etxean egindako lana eta jarrera erabiliko ditugu.

➤ Ebaluazio bakoitzaren nota horrela lortuko da:

##### **\*Azterketak: %70**

- Egindako azterketen batez bestekoa, denak 3,5-etik gorakoak badira.
- Azterketaren bat 3,5-etik beherakoa bada, orduan ebaluazioa gainditu gabea izango du, nahiz eta azterketen batez bestekoa 5,0 edo gorakoa emango balu ere.
- Ebaluazioa gainditzeko, azterketa guztien noten batez bestekoak 5 izan behar du, gutxienez.

##### **\*Eguneroko behaketa: %30**

- %20: Klaseko lana, etxeko lanak, laborategiko praktikak, koadernoak eta bidaltzen diren jarduerak. eTwining programan egindako jarduerak atal honetan ebaluatuko dira.  
**Ezinbestekoa da lan hauek guztiak entregatzea ebaluazioa gainditzeko.** Bestela, ikasleak ebaluazioa suspendituko du eta errekerazio azterketa egunean aurkeztu beharko ditu ebaluazioa errekeratatzeko.
- %10 Jarrera: Klaseko portaera (ikasle, irakasle eta ingurunearekiko begirunea) eta euskararen erabilera  
**Ikasleak jarrera egokia izan behar du ebaluazioa gainditzeko.** Jarrera txarra izan badu ebaluazioan zehar, ebaluazioa suspendituko du. Ebaluazioa errekeratatzeko modua, hurrengo ebaluazioan "jarrera" gainditua edukitzea izango da.

➤ Ebaluazioko nota 5,0-tik beherakoa bada, ebaluazioko nota gainditu gabea izango da, eta ebaluazio osoaren errekerazioa egingo da.

#### ERREKUPERAZIO SISTEMA

- Ebaluazioa **lanen bat ez entregatzeagatik** suspenditu bada, errekupezioko eguenean lan hori entregatu beharko da.
- Ebaluazioa **jarrera txarrarengatik** suspenditu bada, hurrengo ebaluazioan "jarrera"-ren atala gaituz gero errekupeziatzen da bakarrik. Suspenditutako ebaluazioa hirugarrena bada, ikasgaiaren azterketak suspendituta edukiko bazituen trataera berdina izango du errekupeziari begira.
- Ebaluazioa **azterketak ez gaituzteagatik** suspenditu bada:
  - Azterketan ebaluazio osoa errekupeziatzen da; hau da, ebaluazioko unitate guztiak sartzen dira (nahiz eta azterketa baten nota 5,0-tik gorakoa izan).
  - Ebaluazio bakoitzaren errekupeziatze azterketa bat egonen da. Derrigorrezkoa da egitea, nahiz eta ebaluazioaren nota 4,0 - 4,99 izan; errekupeziatze azterketara aurkezten ez bada, errekupeziatze azterketaren kalifikazioa "0" izango da, eta kalifikazio horrekin kalkulatu da errekupeziatzearen nota.

**ERREKUPERAZIOAREN NOTA, honela kalkulatu da:**

- Errekupeziatze azterketaren nota: % 70a
- Ebaluazioan izandako nota: % 30-a

**FROGA GLOBALA:** kurtso bukaeran, ebaluazio bat edo gehiago gaituz gabe duten ikasleentzat:

- **Ebaluazio bakarra** gaituz gabe daukan ikasleak, ebaluazio horren errekupeziatze egingo du globalean baldin eta:
  - 4,0 baino nota baxuagoa badu ebaluazio horretan; horrelakoetan, ebaluazio horren errekupeziatze egingo du globalean.
  - 4,0 eta 4,99 bitarteko nota badu ebaluazio batetan, eta gainera hiru ebaluazioen batez besteak 5,0 baino gutxiago ematean badi; horrelakoetan ere, ebaluazio horren errekupeziatze egingo du globalean.

Kasu hauetan, ebaluazio horren errekupeziatzearen nota lehen aipatu bezala kalkulatu da.

- **Bi edo hiru ebaluazio** gaituz gabe dituen ikasleak, **kurtso osoaren berreskurapena egin beharko du.**

Salbuespena: hirugarren ebaluazioak ez duenez berreskurapen azterketa espezifikorik (globalean egiten baita), salbuespen hau egingo da:

bi ebaluazio gaituz gabe izanik: horietako bat 3. ebaluazioa da, eta beste ebaluazioan (1.a edo 2.a) 4 baino gehiago dauka. Kasu honetan, ikasleak aukeratu du: **edo** ikasturte osoko berreskurapena egitea, **edo** 3. ebaluazioko berreskurapena egitea bakarrik (ebaluazio hau gaituz gero kurtso osoko bataz besteak gaituz gabe eman diezaiolako).

**EKAINENKO NOTA**

Ikasturtean lortutako hiru ebaluazioen arteko batez bestekoa egingo da dena gaituz gabe denean edo ebaluazio bakar bat suspenditua dagoenean (nota gutxienez 4,0 denean).

Froga globala osoa egin dutenentzako ekaineko nota honela kalkulatu da: azterketa globalaren nota: % 70a, kurtso osoan izandako batezbesteko nota: % 30-a.

Ikasgaia gaituzteko 5,0 eskatu da.

**EZ-OHIKO DEIALDIKO NOTA:**

Kurtso osoko froga globala egiten da. Azken nota, frogan lorturiko nota izango da. Gaituzteko 5,0 atera beharko da.

**Errekuperazio kasu guztietarako:** errekupearatzen den ebaluazioaren azken nota %30-%70 portzentajeak aplikatuz gero lortuko da; portzentaje hauek aplikatzean 5 baino gutxiago ematen badu, baina bestetik errekupearazioko azterketa gairidituta balego (5 edo altuagoa), kasu honetan ebaluazioko azken nota "5" izango da.

## ZUZENKETA IRIZPIDEAK ETA GUTXIENEOAK

**Kopiatzea:** banakako lan batean, etxera bidalitako jardueretan eta abar, ikasle batek beste ikasle bati kopiatzen badio, lan horretan "0" kalifikazioa izango du. Modu berean, azterketa batean txuletak, mobila, liburua, edo beste edozein modu harrapatzen bazaio ikasleari, naiz eta erabiltzen aritu ez, azterketa erretiratuko zaio eta frogara horretan "0" kalifikazioa izango du.

**Epeak:** Bidalitako lanak, ariketak, eta abar, ezarritako epean entregatu behar dira. Epez kanpo entregatzen badira, kalifikazioan eragina izango du, atzerapenaren arabera, eta gehienez "5" kalifikazioa izango du.

Ebaluatzeako tresnak:

- Gelako koadernoak: edukia, aurkezpena, garbitasuna, antolamendua eta argitasuna baloratuko dira .
- Azterketa frogara: edukia, azalpenen zehaztasuna, arrazoiak, marrazki eta eskemen erabilpena, garbitasuna, letra ona, argitasuna eta marjinak mantentzea.

## BIRIBILTZE IRIZPIDEAK

Ebaluazio bakoitzaren nota bat jarriko da. Ebaluazio bakoitzak aipatutako unitateak ditu barne. Ebaluazioa suspenditu ezkeror, errekupearazioak egingo dira eta ebaluazioko nota kalkulatu da berriror, aipatutako irizpideei jarraituz.

Ebaluazioko nota jartzeko, borobiltze matematiko arrunta erabiliko da:

- Lehen hamartarra 1, 2, 3 edo 4 bada: unitatea bere horretan mantentzen da.
- Lehen hamartarra 5, 6, 7, 8 edo 9 bada: unitateari 1 gehitzen zaio. Arau hau ez da aplikatuko 0-5 tartean. Gairiditze baldintza 5era iristea da.

0 - 1,4...	1 - GUTXIEGI
1,5 - 2,4...	2 - GUTXIEGI
2,5 - 3,9...	3 - GUTXIEGI
4,0 - 4,9...	4 - GUTXIEGI
5,0 - 5,4...	5 - NAHIKOA
5,5 - 6,4...	6 - ONGI
6,5 - 7,4...	7 - OSO ONGI
7,5 - 8,4...	8 - OSO ONGI
8,5 - 9,4...	9 - BIKAIN
9,5 - 10	10 - BIKAIN

Ikasturte bukaerako nota kalkulatzeko, ebaluazio bakoitzeko borobildu gabeko notarekin kalkulatu da, eta ondoren aurreko borobiltze irizpidea erabiliko da.